

LIZARTZAko TOKIKO AGENDA 21en DIAGNOSTIKOA laburpena



Lizartza

2013ko urria



AURKIBIDEA

1. SARRERA	1
2. DIAGNOSTIKOAREN EGITURA.....	2
3. DIAGNOSTIKOAREN LABURPENA	3



1. SARRERA

Lizartza Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrria da, Gipuzkoako ekialdean kokatutakoa. Batetik, Oresa, Tolosa, Altzo, Berastegi, Gaztelu, eta Leabururekin egiten du muga eta, bestetik, Nafarroarekin.

Udalerrria Araxes haranean dago eta izen bereko ibaiak zeharkatzen du hegoaldeetik iparraldera. Horrez gain, udalerrriaren ekialdea, mendebaldearekin konparatuz menditsuagoa da, 800 m inguruko Otsabio mendiraino iritsiz. 650 biztanle inguru ditu eta bertako ekonomia zerbitzu, lehen sektore eta industrian oinarritzen da.

Tokiko Agenda 21ari dagokionez, Tolomendi Tolosaldeko Landa Garapen Elkartearen eskutik, inguruko beste udalerrri txiki batzuekin batera, prozesuari hasiera eman zion Lizartzak, 2007ko martxoan behin-behineko udalerrriaren Diagnostikoa lortuz.

Dena den, 2007ko udal hauteskundearen ondorioz egoera politiko ezegonkorra egon da herrian eta prozesuarekin aurrera jarraitzeko beharrezkoa zen herri-partaidetza ez zen egon. Hori dela eta, ez zen Tokiko Ekintza Planik gauzatu eta prozesua bertan behera geratu zen.

2012an, ordea, Lizartzan egoera normaltasunera bueltatu ostean, Tokiko Agenda 21 prozesuari ekitea erabaki du Udalak, herriaren partaidetza alde izanik. Hori dela eta, txosten honek udalerrriaren gaur egungo egoeraren diagnostikoa jasotzen du, ondoren, Tokiko Ekintza Plana zehazteko beharrezkoa izango dena, hain zuzen ere.



2. DIAGNOSTIKOAREN EGITURA

Tokiko Agenda 21eko diagnostikoetan alderdi ezberdinak aztertzen dira. Lizartzaren kasuan, Udalsarea 21eko **EAEko udalerrietako Agenda 21eko Ekintza Planak berrikusteko Gida Metodologikoa** hartu da oinarritzat eta, konkretuki, landa-eremuko udalerrientzat bertan jasotzen diren espezifikazioak.

Hori horrela izanda, Diagnostikoaren egitura jarraian adierazten den irudian dago laburbilduta. Bertan jasotzen den bezala, 4 arlo edo multzo nagusitan banatu da azterketa: gizartearen eta ekonomiaren garapena, lurraldeari dagozkion alderdiak, ingurumena eta hezkuntza, komunikazio eta partaidetza alderdiak.

GIZARTEAREN ETA EKONOMIAREN GARAPENA

1. Biztanleria
2. Gizarte ongizatea eta gizarteratzea
3. Hezkuntza, Euskara, kultura eta kirola
4. Etxebizitza
5. Jarduera ekonomikoaren egitura eta maila
6. Lehen sektorea
7. Bigarren sektorea, zerbitzuak eta turismoa
8. Enpleua eta lan merkatua

LURRALDEARI DAGOZKION ALDERDIAK

9. Lurraldea eta antolamendua
10. Natura eta bioaniztasuna
11. Mugikortasuna eta garraioa

INGURUMEN ALDERDIAK

12. Ura
13. Hondakinak
14. Energia
15. Ingurumenaren kalitatea: atmosfera, akustika eta lurzorua
16. Arriskuaren eta ingurumenaren kudeaketa
17. Klima aldaketa eta inpaktu globala

HEZKUNTZA, KOMUNIKAZIOA ETA PARTAIDETZA

18. Komunikazioa, sentsibilizazioa eta herritarren parte-hartzea
19. Barne koordinazioa eta transbertsalitatea



3. DIAGNOSTIKOAREN LABURPENA

Atal honetan, aztertutako alderdi ezberdinen ondorio nagusienak eta, horiei lotuta, esku hartzeko identifikatutako lehentasunezko eremual adierazten dira.

**GAI EREMUA: BIZTANLERIA**

Loturiko Aalborgeko Konpromisoa:		9. GIZARTEKO BERDINTASUNA ETA JUSTIZIA	
AZPIEREMUA		ONDORIOAK	ESKU HARTZEKO LEHENTASUNEZKO EREMUAK
Lurraldea testuinguruan kokatzea		<p>Azken urteetan (2001-2011) bai biztanleriak eta baita biztanle dentsitateak ere gora egin du Lizartzan. Beraz, positibotzat jotzen da biztanle aldetik txikia den udalerrian joera horiek ikustea, nahiz eta eskualdeko eta Gipuzkoako datuekin alderatuz emaitzak nabarmen baxuagoak izan.</p> <p>Nahiz eta momentu honetan Lizartzan ez dagoen biztanleria mantendu edota erakartzeko mekanismorik martxan, azken urteetan biztanleriaren bilakaera positiboa izan da. Alabaina, azken 3-4 urteetako migrazio balantzeak negatiboak dira eta, egoerak horrela jarraituz gero, neurririk hartu ezean, udalerriko biztanle kopuruak behera egin dezakeela pentsa daiteke.</p> <p>Generoa kontutan izanik, Lizartzan emakumezko baino gizonezko gehiago dago. Adin taldeei erreparatuz, biztanleria guztiz zaharkitua egon ez arren, beherakada handia nabarmentzen da 14-39 urte bitarteko biztanleetan. Dena den, 3-13 urte inguruko ume kopurua esanguratsua da eta, horrek, herritik alde egiten ez badute, udalerriko biztanleria mantentzen lagundu dezake.</p> <p>Berezko hazkundea orokorrean positiboa izan den arren, negatiboa ere izan da urte batzuetan (2010ean, esaterako) eta, horrez gain, azken urteetan migrazio balantze globala ere negatiboa izan da; hau da, gehiago dira joandakoak etorritakoak baino. Beraz, alderdi hau kontutan izan beharko da Lizartzaren Ekintza Plana zehazterakoan.</p> <p>Badaude biztanle jaitziera izan duten auzo edo kaleak, baina orokorrean, biztanle kopurua mantendu egin da auzoka azken urteetan. Dena den, lizartzatarren iritziz Kale Nagusian etxebizitza huts ugari dago eta zerbait egin beharko litzateke horri buelta emateko.</p>	Udalaren eskumenekoak <ul style="list-style-type: none">• Azken urteetako migrazio balantzea negatiboa izan da eta, gainera, berezko hazkundea ere, positiboa izan arren, arreta jarri beharko zaio. Beraz, biztanleria mantendu edota hazteko ekimenak indartu beharko dira.• Kale Nagusian etxe huts larregi daude lizartzatarren ustez eta etxe berriak egin orde, lehentasuna etxe huts horiek berriz okupatzean jarri beharko litzateke.
Biztanleriaren bilakaera			
Egitura demografikoa			
Mugimendu naturala eta migratzailea			
Populazioaren banaketa lurraldeka			



GAI EREMUA: GIZARTE ONGIZATEA ETA GIZARATERATZEA		
Loturiko Aalborgeko Konpromisoa:	7. OSASUNERAKO TOKIKO EKINTZA 9. GIZARTEKO BERTINTASUNA ETA JUSTIZIA	
AZPIEREMUA	ONDORIOAK	ESKU HARTZEKO LEHENTASUNEZKO EREMUAK
Ekitatea eta gizarte zerbitzuak		Udalaren eskumeneoak
Gizarte arazoak		<ul style="list-style-type: none"> Lizartzatarren arteko kohesioa bultzatu beharra nabaritzen da, biztanleriaren zati bat Lizartzara lotara baino ez baita etortzen, gainerako herritarrekin ia inongo kontakturik izan gabe.
Gizarte zerbitzuak eta ekipamenduak		
Udalak gizarte zerbitzuetan eta elkartasun ekintzetan egiten duen gastu ekonomikoa		
Berriazko gizarte politikak		
Genero berdintasuna		Udalaz gaindiko eskumena
Gizonezko eta emakumezkoen arteko egoera berdintasuna, lanaren esparruan		<ul style="list-style-type: none"> Pertsona nagusien zainketaekin lotutako politikaren bat aurrera eramatea ikusten da. Jasotako datuen arabera, emakumezko eta gizonezkoen arteko errenta ezberdintasuna gutxitzeko politikaren bat aurrera eraman behar

**GAI EREMUA: GIZARTE ONGIZATEA ETA GIZARTERATZEA**

Loturiko Aalborgeko Konpromisoa:		7. OSASUNERAKO TOKIKO EKINTZA 9. GIZARTEKO BERDINTASUNA ETA JUSTIZIA	
AZPIEREMUA		ONDORIOAK	ESKU HARTZEKO LEHENTASUNEZKO EREMUAK
Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko egoera berdintasuna, udal esparruan		Are gehiago, gehiago dira emakumezkoak gizonezkoak baino. Lizartzan ez dago genero berdintasuneko politikarik martxan.	izatea aurreikusten da.
Genero berdintasuneko politikak			
Bizikidetz			
Herritarren segurtasuna		Lizartzan udaltzain edo polizia egon ez arren, gizarte segurtasunari lotutako datuen arabera trafiko istripuak ez ezik, beste guztietan inguruetako baino datu hobekak daude eta delitu indizeak, 2007tik aurrera beheranzko joera du.	
Gizarte kohesioa			
Gizalegea			
IKTetarako eta telekomunikazioetarako irisgarritasuna			
IKTetarako eta telekomunikazioetarako irisgarritasuna		Udalak badu KZ Gunea eta gero eta etxe gehiagoetan dago interneterako sarbidea. Eusko Jaurlaritzak bultzatuta badago KZ Gunea Lizartzan, eta bertan, ikastaro ezberdinak ematen dira	



GAI EREMUA: GIZARTE ONGIZATEA ETA GIZARTERATZEA

Loturiko Aalborgeko Konpromisoa:		7. OSASUNERAKO TOKIKO EKINTZA 9. GIZARTEKO BERDINTASUNA ETA JUSTIZIA	
AZPIEREMUA		ONDORIOAK	ESKU HARTZEKO LEHENTASUNEZKO EREMUAK
IKTen erabilerearen sustapena		IKTen erabilera lizartzatzen artean sustatzeko. Lizartzan badago postontzia gutunak bidali ahal izateko eta gertuen dagoen Correosen bulegoa Tolosan dago kokatua. Lizartzan badago banku bulegoa eta kutxazain automatikoa.	
Posta zerbitzuak			
Kutxazainen bankuen bulegoak eta			
Osasuna eta osasun zerbitzuak			
Ekipamenduak osasun langileak eta		Astelehenetik ostiralera dago sendagile eta erizaina Lizartzako osasun zentruan.	




GAI EREMUA: HEZKUNTZA, EUSKARA, KULTURA ETA KIROLA			
Loturiko Aalborgeko Konpromisoa:		5. HIRIAREN PLANGINTZA ETA DISEINUA 9. GIZARTEKO BERDINTASUNA ETA JUSTIZIA	
AZPIEREMUA		ONDORIOAK	
		ESKU HARTZEKO LEHENTASUNEZKO EREMUA	
Hezkuntza		Udalaren eskumenekoak	
Hezkuntza eskaintza		Lizartzan haurreskola eta haur- eta lehen-hezkuntza eskaintza dago. Eskolak, gainera, badu jangela eta garraio zerbitzua. 13 urtera arteko 95 ume daude Lizartzan, orokorrean, bertako eskolara doazenak, horiei, Oresako adin bereko 31 ume inguru gehitu behar zaizkielarik. Hori dela eta, eskola txiki geratu da eta berria eraikitzeko lanean dihardute gaur egun. Lizartzan ia ez dago 10 urtetik gorako alfabetatugaberik edo ikasketa gabekorik eta bigarren hezkuntza eta lanbide heziketadunen kopurua gorantz doa.	<ul style="list-style-type: none"> Lizartzan gaztelaniaren erabilera ez zabaltzeko udal politikaren bat garatzea. Herritarren arteko partaidetza sustatzearen beharra ikusten dute lizartzatarrek. Adinekoei zuzendutako aisialdi eskaintza zabalagoa izan beharko litzatekeelakoan daude. Kultur ekipamendu kopurua hobetu daiteke Alondegia birgaituz gero.
Hezkuntza eskaera eta eskaintza-eskaera balantzea			
Herritarren heziketa emaitzak eta heziketa maila			
Euskara		Udalaz gaindiko eskumena	
Euskalduntze maila		Lizartzan ez dago euskara irakasteko ekipamendurik. Lizartzako Udalak Euskara hutsean egiten du lan (ahal den neurrian) eta ia bere osotasunean udalerri euskalduna izanik, ez du aparteko politikarik gai honen inguruan, baina gaztelania entzuten hasi denez, zerbait egin beharko litzatekeelakoan daude lizartzatarrek. Udalaren zerbitzuen %100 eskaintzen da euskaraz, eta udalak bultzatutako jarduera guztiak euskaraz	<ul style="list-style-type: none"> Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren laguntzarekin eskola berria eraikitzea gaur egungo
Ekipamendua eta baliabideak			
Udal politikak			

**GAI EREMUA: HEZKUNTZA, EUSKARA, KULTURA ETA KIROLA**

Loturiko Aalborgeko Konpromisoa:		5. HIRIAREN PLANGINTZA ETA DISEINUA 9. GIZARTEKO BERDINTASUNA ETA JUSTIZIA	
AZPIEREMUA		ONDORIOAK	ESKU HARTZEKO LEHENTASUNEZKO EREMUAK
Euskara jardueran udal		gauzatzen dira. Lizartzako kultur jarduera guztiak euskaraz eskaintzen dira.	beharrizanei (ume kopuruari) erantzuteko.
Euskara eta kultura			
Kultura			
Kultura ekipamenduak eta horien erabilera		Lizartzan kultur ekipamendu ezberdinak daude, adin guztietarako egokitutakoak, eta horietan gauzatzen dira Lizartzako jarduera kulturalak.	
Kultura jarduerak eta partaidetza		Lizartzan dagoen kultur eskaintzaren barruan partaidetza asko jaitsi dela sumatzen dute lizartzatarrek eta hori aldatzeko zerbait egin beharko litzatekeela uste dute. Horrez gain, adinekoei zuzendutako eskaintza zabalagoa izan behar dela uste dute.	
Herritarren dinamika kulturala		Lizartzan elkartegintza eta dinamika kulturalak badu bere bizia, kultur elkarte ezberdinekin eta auzolanean gauzatutako ekintza ezberdinekin.	
Kirola			
Kirol ekipamenduak eta horien erabilera		Lizartzako kirol ekipamendu bakarra Aztinondo Pilotalekua da, estalia da eta gimnasio eta sauna ere baditu. Tolosan eskualde mailako polikiroldegia dago.	
Kirol jarduerak eta partaidetza		Lizartzan badago kirol eskaintza eta herritarrek, orokorrean, hartzen dute parte jarduera horietan. Lizartzan badaude kirol elkarteak eta kirolerako herri dinamika.	



GAI EREMUA: HEZKUNTZA, EUSKARA, KULTURA ETA KIROLA

Loturiko Aalborgeko Konpromisoa:		5. HIRIAREN PLANGINTZA ETA DISEINUA 9. GIZARTEKO BERDINTASUNA ETA JUSTIZIA	
AZPIEREMUA		ONDORIOAK	ESKU HARTZEKO LEHENTASUNEZKO EREMUAK
Herritarren dinamika	kirol 		

**GAI EREMUA: ETXEBIZITZA**




Loturiko Aalborgeko Konpromisoa:		9. GIZARTEKO BERDINTASUNA ETA JUSTIZIA	
AZPIEREMUA		ONDORIOAK	ESKU HARTZEKO LEHENTASUNEZKO EREMUAK
Etxebizitza-parkearen ezaugarriak		<p>Azken urteetan etxebizitza dentsitatea jaitsi egin da, batez ere Arau Subsidiarioek 2007an izandago eguneratzearekin, non etxebizitzarako lurzoruak gehitu egin ziren.</p> <p>Nahiz eta datu eguneraturik ez izan, azken datuek (2001ekoak) Lizartzan etxebizitzaren %33,64 hutsik zeudela adierazten dute. Lizartzatarrak ezagutzen dute egoera eta etxe huts kopurua gutxitu egin beharko litzatekeela uste dute.</p> <p>Lizartzako erosotasun indizea Tolosaldekoa eta Gipuzkoakoaren azpitik dago eta etxebizitzaren batez besteko antzintasuna zertxobait gaineratzen du.</p> <p>2003-2007 urteen artean etxebizitza berriak egiteko lizentzia gehiago eman ziren. 2008tik aurrera, ordea, proportzio hori asko jaitsi zen.</p> <p>Lizartzan ez dago etxebizitza behar edo eskaeraren azterketa espezifikorik eta, beraz, ez dago etxebizitzaren eskaera eta eskaintzaren arteko balantzea egiteko informaziorik.</p> <p>Nahiz eta ez dagoen Lizartzako etxebizitzaren prezioen gaineko datu zehatzik, gaur egun eraikitzen ari diren etxebizitzena Gipuzkoakoa eta EAEkoena baino baxuagoa da.</p> <p>Lizartzako Udalak ez dauka etxebizitza politika berezirik. Dena den, Kale Nagusiko etxebizitza hutsei konponbidea ematea du helburuetako bat.</p>	<p>Udalaren eskumenekoak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Kale Nagusiko etxebizitza huts kopurua murriztu. • Etxebizitzaren konfort adierazle baliok ere inguruko azpitik daude, eta antzintasuna altuagoa da. <p>Udalaz gaindiko eskumena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ez da aurreikusten.
Etxebizitza hutsa			
Etxebizitzaren antzintasuna eta zaharberritzea			
Higiezinaren eskaintza: etxebizitzaren eraikuntza			
Etxebizitza beharra eta eskaera			
Eskaintza-eskaera balantzea	-		
Etxebizitzaren prezioa			



GAI EREMUA: ETXEBIZITZA

Loturiko Aalborgeko Konpromisoa:		9. GIZARTEKO BERDINTASUNA ETA JUSTIZIA	
AZPIEREMUA		ONDORIOAK	ESKU HARTZEKO LEHENTASUNEZKO EREMUAK
Erakunde arloa	-		



GAI EREMUA: JARDUERA EKONOMIKOAREN EGITURA ETA MAILA			
Loturiko Aalborgeko Konpromisoa:		8. TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA 9. GIZARTEKO BERDINTASUNA ETA JUSTIZIA	
AZPIEREMUA		ONDORIOAK	ESKU HARTZEKO LEHENTASUNEZKO EREMUAK
Eredu ekonomikoa		<p>Nahiz eta azken urteetan establezimendu kopurua mantendu eta enplegu kopuruak gora egin, azken 3 urteetan enplegu kopuruak beheranzko joera du Lizartzan eta herriko industriguneak kanpokoei ematen omen die lana.</p> <p>Lizartzan balio erantsi gordin nagusiena industria sektoreak du eta biztanleko BPG Tolosaldekloa eta Gipuzkoakoa baino zertxobait baxuagoa da.</p> <p>Lizartzako familien ongizate ekonomiko maila, 2009ko datuen arabera, Tolosaldekloa, Gipuzkoakoa eta EAEkoa baino eskasagoa da.</p>	<p>Udalaren eskumeneoak</p> <ul style="list-style-type: none"> Lizartzako jarduera ekonomikoek herritarrentzako lanpostu gehiago izan beharko lukete eta horretarako udal politikaren bat bideratzea ongi legoke. <p>Udalaz gaindiko eskumena</p> <ul style="list-style-type: none"> Lizartzatarren famili ongizate maila ingurukoena baino baxuagoa da eta biztanleko BPG ere baxuagoa. Egoera aldatzeko politikaren bat garatu beharko litzateke. Lizartzako lanpostu kopurua handitzeko politikaren bat bideratu beharko litzateke (eskuade
Jarduera ekonomikoaren maila orokorra			
Familiaren ongizate ekonomiko maila			



GAI EREMUA: JARDUERA EKONOMIKOAREN EGITURA ETA MAILA


Loturiko Aalborgeko Konpromisoa:		8. TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA 9. GIZARTEKO BERDINTASUNA ETA JUSTIZIA	
AZPIEREMUA	ONDORIOAK		ESKU HARTZEKO LEHENTASUNEZKO EREMUA mailan, esaterako).

**GAI EREMUA: LEHEN SEKTOREA**

Loturiko Aalborgeko Konpromisoa:		8. TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA 9. GIZARTEKO BERDINTASUNA ETA JUSTIZIA	
AZPIEREMUA		ONDORIOAK	ESKU HARTZEKO LEHENTASUNEZKO EREMUAK
Sektorearen egitura		<p>Lehenengo sektoreak Lizartzako Balio Erantsi Gordinari egiten dion ekarpena %2 ingurukoa baino ez da, eta joera jaisten joatearena da eta 16 urtetik gorako okupatutako lizartzatarren %2k baino ez dihardu sektore honetan.</p> <p>Lehen sektorearen Balio erantsi Gordina Lizartzan Tolosaldekoa, Gipuzkoakoa eta EAekoa baino altuagoa da, landa-eremuko udalerrietan gertatu ohi den bezala. Dena den, ez da ahaztu behar joera jaisten joatearena dela.</p> <p>Lizartzako gero eta gazte gutxiagok aukeratzen dute lehen sektorea beraien jardura ekonomiko gisa.</p> <p>Lehen sektoreko jardueren beherakadak, Lizartzako inguruaren egoera trakestea suposatu du.</p> <p>Azken urteetan nekazaritzara bideratutako lur azalera ia erdira murriztu da.</p> <p>Abeltzantza unitate kopuruak ere beherakada nabarmena izan du Lizartzan azken urteetan.</p> <p>Lizartzako lur azaleraren %74 basoek osatzen dute eta udalerriko baso portzentaia eskualdekoa eta Gipuzkoakoa baino altuagoa da. Hostozabalek hartzen dute Lizartzako baso azaleraren %70 eta %30 koniferoek. Basoberritze gehienak koniferoekin egiten dira.</p>	<p>Udalaren eskumenekoak</p> <ul style="list-style-type: none"> Lehen sektorearen eboluzioa negatiboa da Lizartzan, bere adierazgarritasuna gero eta txikiagoa izanik. Horrek gainera, paisaiaren eraldaketa ekarri du, gero eta "egoera kaxkarragoa" bistaratu.
Bizitasuna eta errendimendu ekonomikoa			<p>Udalaz gaindiko eskumena</p> <ul style="list-style-type: none"> Lehen sektorea bultzatzeko udalaz gaindiko politika edo ekimenen bat garatzea beharrezkoa litzateke lehen sektorea bultzatzeko eta gazteak sektore honetan interesatzeko.
Belaunaldi dinamismoa			
Gizartea, ekonomia eta ingurumen funtzionaltasuna			
Nekazaritza azpisektorea			
Abeltzaintza azpisektorea			



GAI EREMUA: LEHEN SEKTOREA

Loturiko Aalborgeko Konpromisoa:		8. TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA 9. GIZARTEKO BERDINTASUNA ETA JUSTIZIA	
AZPIEREMUA		ONDORIOAK	ESKU HARTZEKO LEHENTASUNEZKO EREMUAK
Baso azpisektorea			



GAI EREMUA: BIGARREN SEKTOREA, ZERBITZUAK ETA TURISMOA		
Loturiko Konpromisoa:	Aalborgeko	8. TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA 9. GIZARTEKO BERDINTASUNA ETA JUSTIZIA
AZPIEREMUA	ONDORIOAK	
Bigarren sektorea		
Sektorearen egitura		EUSTATen datuen arabera, Lizartzan 2012an 14 establezimendu industrial zeuden.
Bizitasuna errendimendu ekonomikoa eta		Lizartzako jarduera ekonomikoen barruan, industriak Balio Erantsi Gordinaren %62 suposatzen du, Tolosaldean, Gipuzkoan eta EAEn baino nabarmen gehiago.
Zerbitzuen sektorea		
Sektorearen egitura		Sektorearen egiturari dagokionez, establezimendu aldetik garrantzi gehien duena merkataritza, garraioa eta ostalaritza dira (%47) eta gutxien, ordea, finantza eta aseguru jarduerak (%4).
Bizitasuna errendimendu ekonomikoa eta		Lizartzako jarduera ekonomikoen barruan, zerbitzuek Balio Erantsi Gordinaren %33 suposatzen du, Tolosaldean, Gipuzkoan eta EAEn baino gutxiago.
Turismo eta ostalaritza sektorea		
Azpiegitura turistikoa		Lizartzak, jatetxe eta ostatuko plazez gain ez du aparteko baliabide turistikorik eta ez da turismorako prestatuta dagoen udalerrria.

Udalaren eskumeneoak




- Lizartzan turismoa bultzatu nahi den zehaztu beharko luke herriak.

Udalaz gairako eskumena

- Turismoa bultzatu nahi izanez gero, eskualde mailako ekimenen parte izan daiteke Lizartza.



GAI EREMUA: BIGARREN SEKTOREA, ZERBITZUAK ETA TURISMOA

Loturiko Aalborgeko Konpromisoa:		8. TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA 9. GIZARTEKO BERDINTASUNA ETA JUSTIZIA	
AZPIEREMUA		ONDORIOAK	ESKU HARTZEKO LEHENTASUNEZKO EREMUAK
Turismo baliabideak eta erakargarritasunak		Baliabideak egon badaude, baina herritarrek ez dute argi turismoa bultzatu nahiko luketen Lizartzan. Ez da ia turistarik etortzen Lizartzara. Ez dago turismo produkturik Lizartzan.	
Turismoaren profila			
Produktuen egituratzea, sustapena eta merkaturatzea			

**GAI EREMUA: ENPLEGUA ETA LAN MERKATUA**

Loturiko Aalborgeko Konpromisoa:		8. TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA 9. GIZARTEKO BERDINTASUNA ETA JUSTIZIA	
AZPIEREMUA		ONDORIOAK	ESKU HARTZEKO LEHENTASUNEZKO EREMUAK
Biztanleria aktiboa		<p>16 urte edo gehiagoko biztanleen jardura tasaren proportzioa Lizartzan Tolosaldekoa, Gipuzkoakoa eta EAEkoa baino altuagoa da. Dena den, emakumezkoen kasuan, proportzioa baxuagoa da.</p> <p>Lizartzako okupazio-tasa, Tolosaldekoa, Gipuzkoakoa eta EAEkoa baino zertxobait altuagoa da, eta bere eboluzioa aztertuz, azken 20 urte inguruan %89tik gora mantendu da. Langile kopuruari dagokionez, garrantzi handiena duen sektorea manufaktura industriarena da. Dena den, herritarren ustez, Lizartzako industriako langileak inguruetakoa herrietakoak dira eta ez lizartzatarrak.</p> <p>Lizartzan erregistratutako langabezi tasa eskualdekoa eta Gipuzkoakoa baino altuagoa da. Halaber, azken urteetan ez dago alde gehiegirik emakumezko eta gizonezkoen artean. Langabetu gehien dituen sektorea industriarena da.</p> <p>Kontratazioan ere, okupazio eta errenta mailan jaso bezala, emakumeen egoera gizonezkoena baino kaxkarragoa da.</p> <p>Badago eskualde mailan enplegu prestakuntza politikak jorratzen dituen erakundea (Tolosaldea Garatzen), orientazio eta zerbitzu ezberdinak lantzen eta eskaintzen dituena.</p> <p>Ez dago Lizartzan telelanak duen ezarpena ezagutzeko informaziorik.</p>	<p>Udalaren eskumenekoak</p> <ul style="list-style-type: none"> Ez da aurreikusten. <p>Udalaz gairik gaitzeko eskumena</p> <ul style="list-style-type: none"> Langabetu kopurua murrizteko ekintzak Lizartzako industrietan lana sustatuz Tolosaldea Garatzenen eskutik. Gizonezko eta emakumezkoen artean, kontratazioan dagoen ezberdintasuna murrizteko ekimenak garatu.
Biztanleria okupatua			
Langabezia			
Kontratazioa			
Enplegu prestakuntza politikak			
Telelana			

**GAI EREMUA: LURRALDEA ETA ANTOLAMENDUA**

Loturiko Aalborgeko Konpromisoa:		5. HIRIGINTZA PLANGINTZA ETA DISEINUA	
AZPIEREMUA		ONDORIOAK	ESKU HARTZEKO LEHENTASUNEZKO EREMUA
Lurralde eremua		Bere azaleraren %97 inguru lurzoru urbanizaezina duen landa eremuko udalerrria da, baina herrigunean baditu etxebizitza blokeak.	Udalaren eskumeneoak <ul style="list-style-type: none"> Lehenengo harrobiaren berreskurapen lanak egin herriaren partaidetzaren eskutik. Udalaz gaindiko eskumena <ul style="list-style-type: none"> Goltzur Zelairi, bere paisaia balioa dela eta, udalaz gaindiko babes figuraren bat eman. Tolosaldeko Plan Partziala garatu, Lizartzarentzat erabakigarriak izan daitezkeen eremu eta ekintzak zehazteko.
Udal lurzoruaren egitura organikoa eta erabilerak		Herriguneak forma luzea du eta udalerrriaren iparraldean kokatzen da. Lizartzaren azalera gehiena lurzoru urbanizaezina da eta ondo zehaztuta daude bertan garatu daitezkeen jarduerak arau subsidiarioetan.	
Hiri egitura eta ehundura		Lizartzako udalerrriak, landa-eremukoa izan arren, herriguneak badu herri izaera, altuera asko ez duten etxe blokeak baitaude. Horrez gain, badaude herrigunetik zertxobait urrundutako baserri auzo batzuk, baina, orokorrean, ondo komunitatuta daudenak herrigunearekin.	
Hiriko eta hiri inguruetak berdeguneak		Lizartzan, landa eremuko udalerrria izanik, ia-ia, eraikita ez dagoen eremua berde-gunea da. Lizartzako Arau Subsidiarioek Paisaia Babesteko Lurzoru Hiritar Ezina bezala mugututako eremua zehazten dute, Goltzur Zelai, hain zuzen ere.	
Paisaia eta gune hondatuak		Lizartzan badaude ondare arkitektoniko eta kulturalaren erakusgarri diren elementu ezberdinak, babeserako figura ezberdinak dituztenak.	
Ondare arkitektonikoa eta kulturala		Tolosaldeko Lurralde Plan Partziala aurrerapen fasean dago 2005az geroztik, hasierako onespenik ere jaso gabe. Lizartzako Arau Subsidiarioak 2007koak dira eta beraietan ondo zehazten da zein hiri-antolamendu lortu nahi den: herri egitura kontsolidatu, erdigunea osatu eta GI-2135 errepideak gaur egun sortzen duen "haustura" samurtu.	
Lurralde eta sektore antolamendua		Lizartzako Arau Subsidiarioetan jasotzen dira eraikuntzan eta antolamenduan erabilibili beharreko	



GAI EREMUA: LURRALDEA ETA ANTOLAMENDUA		
Loturiko Aalborgeko Konpromisoa:	5. HIRIGINTZA PLANGINTZA ETA DISEINUA	
AZPIEREMUA	ONDORIOAK	ESKU HARTZEKO LEHENTASUNEZKO EREMUA
Hiri antolamendua	iraunkortasun irizpideak.	
Antolamenduan eta eraikuntzan iraunkortasun irizpideak sartzea		



GAI EREMUA: NATURA ETA BIOANIZTASUNA		
Loturiko Aalborgeko Konpromisoa:	3. ONDASUN NATURAL KOMUNAK	
AZPIEREMUA	ONDORIOAK	ESKU HARTZEKO LEHENTASUNEZKO EREMUAK
Natura eta paisaia balioak		<p>Udalaren eskumenekoak</p> <ul style="list-style-type: none"> Ez da aurreikusten. <p>Udalaz gaindiko eskumena</p> <ul style="list-style-type: none"> Ez da aurreikusten.
Sistema naturalen eta paisaien kontserbazio egoera		
Jardueren eragina eta arriskuak nekazaritzan zein natur ingurunean		
Babestutako naturguneak		
Natur ingurunearen antolamendua eta kudeaketa		



GAI EREMUA: MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA		
Loturiko Aalborgeko Konpromisoa:		6. MUGIKORTASUNA HOBETZEA ETA ZIRKULAZIOA MURRIZTEA 10. TOKIAN TOKIKO EREMUTIK ESPARRU GLOBALERA
AZPIEREMUA		ONDORIOAK
		ESKU HARTZEKO LEHENTASUNEZKO EREMUA
Ohiko mugikortasun beharraren ezaugarriak		Lizartzan, 16 urtetik gehiagoko ikasleen %100 udalerritik kanpora joaten da eta baita langileen ia %79 ere. Datu horiek eskualdekoak, Gipuzkoakoak eta EAEkoak baino askoz altuagoak dira.
Mugikortasunaren kudeaketa eta antolaketa		Nahiz eta Lizartzan ez dagoen mugikortasuna kudeatzeko plan berezirik, eskualde mailan, Tolosaldea Garatzenen eskutik, ekimen ezberdinak gauzatzen ari dira: garraio publikoaren hobekuntzarako proposamena, auto konpartitzeko ekimena eta Tolosaldeko Bizikleta Mugikortasuneko Plana, non Lizartza Tolosarekin lotuko den bizikleta-bidea proposatzen den.
Lurraldeko loturak eta irisgarritasuna eta garraio publikoa		Bi autobus zerbitzu daude Lizartzan, Lizartza Tolosarekin lotzen duena eta, bestea, Lizartza Donostia eta Iruñarekin lotzen duena.
Oinezkoen eta bizikleten sareen ezaugarriak		Lizartzan ez dago bizikleta bide-sare edo bidegorririk, nahiz eta eskualde mailan proiektua egon eta Tolosa (eskualdeko herri nagusia) nahiko gertu egon.
Bide sarea		Lizartzako errepide sarearen dentsitatea Tolosa bezalako herrien antzekoa da (0,8 km ² ingurukoa) eta bertako trafiko intentsitatea esanguratsua dela, Nafarroako zeharbide garrantzitsua baita bertatik igarotzen den GI-2135 errepidea.
		Orokorrean, landa bideak egoera onean daude. Dena den, lizartzatarren ustez, badaude hobetu beharko liritekeen bideak, herritarrek erabili ahal izateko.
		Ez da aparkatzeko arazo ugari dituen udalerrria. Herrigune beteago egoten da baina urruti joan gabe egoten da aparkatzeko tokia.
		Lizartzan, proportzioan, Gipuzkoan eta EAEn baino ibilgailu gehiago dago biztanleko. Turismoen kasuan

Udalaren eskumenekoak

- Lizartzako landa bideen egoera hobetu lizartzatarren erabilerarako.

Udalaz gaindiko eskumena

- Lizartza Tolosarekin lotuko duen bidegorria eraiki, autoarekiko dependentzia gutxitzeko.
- Istripuak murrizteko edo arintzeko neurriak hartu beste erakunde batzuekin batera: bide-hezkuntza, etab.

**GAI EREMUA: MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA**

Loturiko Aalborgeko Konpromisoa:		6. MUGIKORTASUNA HOBETZEA ETA ZIRKULAZIOA MURRIZTEA 10. TOKIAN TOKIKO EREMITIK ESPARRU GLOBALERA	
AZPIEREMUA		ONDORIOAK	ESKU HARTZEKO LEHENTASUNEZKO EREMUAK
Landa bide sarea		<p>0,48 ibilgailu biztanleko.</p> <p>Lizartzan 2011n izandako istripuetatik erdiak baino gehiago biktima gabekoak izan ziren. Eta 22 istripu horietan hildakorik ez eta 2 zauritu larri egon ziren.</p> <p>Lizartzan ez dago salgaien garraiorako azpiegitura berezirik.</p> <p>Azken urteetan ez da bide-hezkuntzako ekimenik gauzatu Lizartzan.</p>	
Aparkalekua			
Motorizazioa eta ibilgailuen atala			
Istripuak			
Salgaiak			
Bide hezkuntza			



GAI EREMUA: URA		
Loturiko Aalborgeko Konpromisoa:		3. ONDASUN NATURAL KOMUNAK
AZPIEREMUA		ONDORIOAK
		ESKU HARTZEKO LEHENTASUNEZKO EREMUA
Ur horniketa		<p>Gaur egun arte, Lizartzan ez da ur-horniketa arazo larririk izan eta ur-hornidurarako sistemaren errendimendu indizea Gipuzkoakoa eta EAEkoa baino altuagoa da.</p> <p>Lizartzako edateko urak banatzeko sarean galerak identifikatzen dira, 2009an %48,76 izatera iritis ahal izan zirenak. Datu hori ur kontsurtzioak fakturaturakoa eta Lizartzako udal kontadoreek neurtutakoaren diferentziarekin lotu da.</p> <p>Lizartzan ur gehien kontsumitzen duen sektorea etxeetakoa da (EAEn eta Gipuzkoan baino gutxiago, proportzioan), 40.000 inguru m³/urteko. Horren ostean Industriak hartzen du garrantzia handiena, lokal komertzialak horien atzetik geratuz.</p> <p>Duela gutxi eraikitako araztegiarekin arazoak daude, euri urak eta ur beltzak elkarrekin baitoaz hoditerian zehar eta, araztegiak, ezin omen ditu urak horrela tratatu.</p> <p>Uraren bajako kudeaketa eztabaida sendoak sorteen ari den gaia da Lizartzan gaur egun, Gipuzkoako Ur Kontsurtzioari kudeaketa uzteko aukera agertu denean sortu dira eztabaidak.</p> <p>Lizartzan, azken aldirian, ez da ur kontsumoaren gaineko sentsibilizazio kanpainarik garatu. Dena den, bertako bates besteko ur kontsumoa inguruetakoa baino baxuagoa da.</p> <p>Araxes ibaiak emari egokia du, eta bere uren kalitatea ona da.</p>
Edateko ura banatzeko sarea		
Eskaera eta kontsumoa		
Saneamendu eta arazketa		
Uraren zikloaren araudia eta kudeaketa		
Sentsibilizazioa		
Ibaitako baliabideen kalitatea eta eskuragarritasuna		
		<p>Udalaren eskumenekoak</p> <ul style="list-style-type: none"> Lizartzatarrentzako uraren kudeaketa sistema egokiena zein den erabaki eta erabakitakoa aurrera eraman. <p>Udalaz eskumena gairik</p> <ul style="list-style-type: none"> Araztegia Lizartzako errealitate eta beharrezanetara egokitu Gipuzkoako Aldundiarekin batera.



GAI EREMUA: URA		
Loturiko Aalborgeko Konpromisoa:	3. ONDASUN NATURAL KOMUNAK	
AZPIEREMUA	ONDORIOAK	ESKU HARTZEKO LEHENTASUNEZKO EREMUA
Uraren kalitatea		



GAI EREMUA: HONDAKINAK		
Loturiko Konpromisoa:	Aalborgeko	4. KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK 10. TOKIAN TOKITIK ESPARRU GLOBALERA
AZPIEREMUA	ONDORIOAK	
		ESKU HARTZEKO LEHENTASUNEZKO EREMUAK
Hiri hondakinak sortzea		Azken urteetan biztanleko sortutako hondakin kourua murriztu egin da eta gaika bildutako hondakin ezberdinen proportzioa handituz, joera positiboa izanez.
Gaikako bilketa		Tolosaldeko hondakinen birziklatze tasak, orokorrean mantendu eta hobetu egin dira azken urteetan. Dena den, etxeetako hondakinen birziklatze tasa industria, merkataritza eta erakundeetako hondakinena baino txikiagoa da.
Hiri hondakinen kudeaketa		Lizartzan, gaur egun, edukiontzi bidezko hondakinen jasotze-sistema dago eta eskualdeko beste udalerrri batzuen antzera, atez ateko bilketa sistema ezartzeko aukerak aztertzen ari dira.
Hiri hondakinen tratamendua		Tolosaldeko Mankomunitateak kudeatzen ditu Lizartzako hondakinak eta bildutako gai bakoitzak dagokion tratamendu edo kudeaketa jasotzen du. Etxeetako zaborrak zabortegira doaz.
Hiri hondakinei buruzko ordenantzak eta zergak		Ez dago hiri-hondakinen inguruko ordenantzarik. Dena den, azken aldiko "aldaketak" dorela eta, badago nolabait arautzeko ideia.
Sentsibilizazioa		Tolosaldeko Mankomunitateak bai birziklapena hobetzeko eta sortutako hondakin kopuruak gutxitzeko kanpaina ezberdinak jorratzen ditu. Tolosaldeko Mankomunitateak enpresetako kartoi, zur eta hiri-hondakinak biltzen ditu. Gainerakoak, enpresa bakoitzak, baimendutako kudeatzaileen bidez kudeatzeko beharra du. Tolomendik eskaintzen du nekazaritza hondakin ezberdinak jasotzeko zerbitzua. Obretarako lizentziak ematerakoan egoki kudeatuko direla ziurtatzen da Udaletik. Urtean behin egiten dira bide garbiketak Lizartzan. Tolomendiren barnean den Belarmendik eskaintzen

Udalaren eskumeneoak

- Lizartzako hiri-hondakinen (etxeetakoak, hain zuzen ere) gaikako bilketa edo birziklatze tasa hobetu.

- Hondakinen gaindeko ordenantza edo araudia zehaztu.

Udalaz gaindiko eskumena

- Ez da aurreikusten.



GAI EREMUA: HONDAKINAK





Loturiko Aalborgeko Konpromisoa:		4. KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK 10. TOKIAN TOKITIK ESPARRU GLOBALERA	
AZPIEREMUA		ONDORIOAK	ESKU HARTZEKO LEHENTASUNEZKO EREMUAK
Hondakin industrialak		duen Makinaria Zerbitzua kontratatzen da horretarako. Horrez gain, makina pasatu ostean, auzolanean, arekak txukuntzen dira.	
Nekazaritza hondakinak			
Eraikuntzako hondakinak			
Bide garbiketa			

**GAI EREMUA: ENERGIA**

Loturiko Aalborgeko Konpromisoa:		3. ONDASUN NATURAL KOMUNAK 4. KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK 10. TOKIAN TOKITIK ESPARRU GLOBALERA	
AZPIEREMUA		ONDORIOAK	ESKU HARTZEKO LEHENTASUNEZKO EREMUA
Egitura energetikoa		Industria da, Lizartzan, energia gehien kontsumitzen duen sektorea.	Udalaren eskumenekoak <ul style="list-style-type: none"> Ez da aurreikusten. Udalaz gaindiko eskumena <ul style="list-style-type: none"> Lizartzako Argiteria Publikoaren Auditorian jasotako neurriak martxan jarri EEEren laguntzarekin batera.
Energia berriztagarrien ekoizpena		Lizartzan instalatuta dauden energia berriztagarriak biomasatik datorrena, fotoboltaikoa, hidraulikoa eta eguzki energia termikoarena dira. EEEren aurreikuspenen arabera, energia gehien biomasarenak sortu du azken urteetan, 81.600 kWhra iritsiz.	
Tokiko administrazioko energiaren kontsumoa eta kudeaketa		2012 eta 2013 urteetan Lizartzako Argiteria Publikoaren energia auditoria gauzatu da. Momentu honetan, EEEren laguntzaz, auditoriaren ondorioz har daitezkeen neurriak ezartzeko prozesuan dago Udala. Udal ekipamenduetatik gehien kontsumitzen duena argiteria publikoa da. Herriko argien kontsumoa murrizteko neurriak hartzeko bidean da Lizartzako Udala, %65,01eko energia aurrezpena suposatuko duena, hain zuzen ere. Ez dago udal ibilgailuen kontsumoaren gaineko informaziorik.	
Udal ekipamenduen kontsumoa		Lizartzan ez dago energia aurrezpena, eraginkortasuna eta energia berriztagarrien ekoizpena sustatzeko araudi edo zerga berezirik. Ez dago energiaren inguruko sentsibilizazio kanpainarik Lizartzan.	
Herriko argien kontsumoa		Gas hornidura herriguneko etxebizitzetara heltzen da. Argiteria publikoaren kable guztiak lurpetik joan arren, argi indarraren kableak, eremu batzuetan airetik doaz.	
Udal ibilgailuen kontsumoa	-	Lizartzako Arau Subsidiarioek eraikin berriek energia alorrean kontutan izan beharreko irizpideak jasotzen dituzte.	



GAI EREMUA: ENERGIA


Loturiko Aalborgeko Konpromisoa:		3. ONDASUN NATURAL KOMUNAK 4. KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK 10. TOKIAN TOKITIK ESPARRU GLOBALERA	
AZPIEREMUA		ONDORIOAK	ESKU HARTZEKO LEHENTASUNEZKO EREMUAK
Energia kudeatzeko Araudia			
Sentsibilizazioa			
Udalerriko energia azpiegiturak			
Eraikuntza			

**GAI EREMUA: INGURUMENAREN KALITATEA: ATMOSFERA, AKUSTIKA ETA LURZORUAK**

Loturiko Aalborgeko Konpromisoa:		3. ONDASUN NATURAL KOMUNAK	
AZPIEREMUA		ONDORIOAK	ESKU HARTZEKO LEHENTASUNEZKO EREMUAK
Atmosferara egindako isuriak		<p>Lizartzan atmosfera kutsa dezaketen isurien iturri nagusiak industria eta ibilgailuen zirkulazioa lirateke. Tolosaldean airearen kalitatean garrantzi gehien duena partikulak dira (PM10), batik bat, ibilgailuen zirkulaziotik datozenak.</p> <p>Lizartzako zarata puntu nagusienak, industria eta errepidea dira.</p> <p>Lizartzan ez dago zarata edo kalitate akustikoa bereziki arautzen duen udal-ordenantzarik.</p> <p>IHOBEren lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten lurzoruen inbentarioan sartutako 3 eremu daude: Kaskardi harrobiarena, Urbizu Zerrategiarena eta Goikoetxeandia deiturikoa.</p> <p>Lizartzako Udala Harrobia dagoen tokia berreskuratzeko lanetan dabil gaur egun, lurzorua kalitateari dagozkion betebeharrak kontutan izanik.</p> <p>Momentuz, Lizartzan ez da airearen kalitatearekin kalitate akustikoarekin eta kutsatutako lurzorua berreskuratzearekin lotutako komunikazio edo sentsibilizazio kanpainarik garatu.</p>	<p>Udalaren eskumenekoak</p> <ul style="list-style-type: none"> Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen jarraipen jarraitua egin. <p>Udalaz gaindiko eskumena</p> <ul style="list-style-type: none"> Airearen kalitatea hobetzeko ekintzak jarri martxan.
Airearen kalitatea			
Kalitate akustikoa			
Kalitate akustikoaren kudeaketa			
Lurzorua kalitatea			
Lurzorua kalitatearen kudeaketa			



GAI EREMUA: INGURUMENAREN KALITATEA: ATMOSFERA, AKUSTIKA ETA LURZORUAK




Loturiko Aalborgeko Konpromisoa:		3. ONDASUN NATURAL KOMUNAK	
AZPIEREMUA		ONDORIOAK	ESKU HARTZEKO LEHENTASUNEZKO EREMUAK
Komunikazioa, prestakuntza eta sentsibilizazioa			

**GAI EREMUA: ARRISKUAREN ETA INGURUMENAREN KUDEAKETA**






Loturiko Aalborgeko Konpromisoa:		2. IRAUNKORTASUNERA BIDERATUTAKO UDAL KUDEAKETA 3. ONDASUN NATURAL KOMUNAK	
AZPIEREMUA		ONDORIOAK	ESKU HARTZEKO LEHENTASUNEZKO EREMUAK
Arriskuaren kudeaketa			
Arrisku naturalak eta teknologikoak		Lizartzan, batez ere, akuifero eta uholdeekin lotutako arrisku naturalak daude identifikatuta. Lizartzan ez dago Larrialdietarako Udal Planik.	Udalaren eskumenekoak <ul style="list-style-type: none"> Erosketa Publiko Berdearen irizpideak ezarri udal erosketa eta kontratazioan. Udalaz gaindiko eskumena <ul style="list-style-type: none"> Larrialdietarako Udal Plana definitu kasu horietan parte hartu dezaketen beste erakundeekin batera.
Arrisku naturala eta teknologikoa kudeatzea			
Jarduera ekonomikoan kudeaketa			
Jarduera ekonomikoaren ingurumen eraginaren arriskua		Lizartzako ia jarduera guztiek jarduera lizentzia tramitatuta daukate. Udalak kontrol zehatza darama herriko industria nagusien inguruan eta neurri zuzentzaileak betearazten ditu.	
Jarduera ekonomikoaren kudeaketa		Udalak modu egokian kudeatzen ditu udalerriko jarduera ekonomikoak, nahiz eta badauden tamaina txikiko jarduera ezberdinak, non beraien legeztatze egoera berrikusi beharko litzatekeen.	



GAI EREMUA: ARRISKUAREN ETA INGURUMENAREN KUDEAKETA

Loturiko Aalborgeko Konpromisoa:		2. IRAUNKORTASUNERA BIDERATUTAKO UDAL KUDEAKETA 3. ONDASUN NATURAL KOMUNAK
AZPIEREMUA	ONDORIOAK	ESKU HARTZEKO LEHENTASUNEZKO EREMUAK
Udal Administrazioaren Erosketa Publikoa eta Ingurumen Kudeaketa		
Erosketa eta kontratazio publiko berdea (KPB)		Orokorrean, Lizartzako Udalean ez da erosketa eta kontratazio publiko berdearen irizpiderik erabiltzen. Lizartzako udal teknikariek ez dute gai honen inguruko heziketa edo sentsibilizazio informazio berezirik jaso. Lizartzako Udalean ez dago ingurumen kudeaketarako sistemarik ezarrita.
Heziketa, sentsibilizazioa eta komunikazioa erosketa eta kontratazio publiko berdearen arloan		
Udal administrazioaren ingurumen kudeaketa		



GAI EREMUA: KLIMA ALDAKETA ETA INPAKTU GLOBALA			
Loturiko Aalborgeko Konpromisoa:		4. KONTSUMOA ETA BIZIMODU ARDURATSUAK 10. TOKIAN TOKITIK ESPARRU GLOBALERA	
AZPIEREMUA		ONDORIOAK	ESKU HARTZEKO LEHENTASUNEZKO EREMUAK
Klima aldaketari egiten ekarpena		<p>Ez dago Lizartzako BEGen kopuru eta eboluzioaren gaineko informaziorik.</p> <p>Lizartzan ez dago klima aldaketaren aurkako borroka planifikatzeko eta kudeatzeko berariazko tresnarik.</p> <p>Lizartzan ez dago hustubideen kudeaketari eta isurpen konpentsazioei lotutako berariazko ekimenik.</p> <p>Lizartzan ez dago klima aldaketari egokitzera bideratutako ekimenik.</p> <p>Lizartzan ez dago klima aldaketaren gaineko aparteko sentsibilizazio kanpainarik.</p>	<p>Udalaren eskumenekoak</p> <ul style="list-style-type: none">• Klima aldaketari eragiten dioten Berotegi Efeztuko Gasen inbentario edo zenbaketa sistemaren bat ezarri. <p>Udalaz gaindiko eskumena</p> <ul style="list-style-type: none">• Ez da aurreikusten.
Klima aldaketaren aurkako borroka planifikatzeko berariazko tresnak			
Hustubideen kudeaketari eta isurpen konpentsazioei lotutako berariazko ekimenak			
Klima aldaketari egokitzea			
Sentsibilizazioa eta parte-hartzea			

**GAI EREMUA: KOMUNIKAZIOA, SENTSIBILIZAZIOA ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEA**

Loturiko Aalborgeko Konpromisoa:		1. GOBERNATZEKO MODUAK 4. KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK	
AZPIEREMUA		ONDORIOAK	ESKU HARTZEKO LEHENTASUNEZKO EREMUAK
Komunikazioa		<p>Udalerrri txikia izanik, udalak herritarrei zuzendu beharreko mezuak bide horien bitartez ondo iristen dira.</p> <p>Udalaz gairik erakundeek gauzatu dituzte azken urteetan sentsibilizazio kanpaina ezberdinak (hondakinak, garraioa, etab) eta, horrez gain, Lizartzako Juan XXIII Ikastetxea Eskolako Agenda 21 Programan parte hartu izan du.</p> <p>Lizartzako udalerrian, azken urteetako egoera politiko ez-ohikoan izan ezik, parte-hartzea guztiz barneratuta duen udalerrri eta Udala dira; herriko alderdi ezberdinak herri partaidetzara zabaltzen dituelarik.</p> <p>Parte-hartze tresnak badaude: gaikako batzordeak eta aldizkako herri batzarrak.</p> <p>Lizartzan gai ezberdinetako elkarteak daude: kirol elkarteak, ehiza elkarteak, kultura elkarteak, etab.</p>	<p>Udalaren eskumenekoak</p> <ul style="list-style-type: none"> Lizartzatarren partaidetza maila sustatzeko ekintzak. Lizartzako eskola Eskolako Agenda 21en parte hartzen jarrai dezan sustatu. <p>Udalaz gairik eskumena</p> <ul style="list-style-type: none"> Ez da aurreikusten.
Sentsibilizazioa			
Parte-hartze kultura			
Parte hartzeko tresnak eta bideak			
Elkarteen sarea			



GAI EREMUA: BARNE KOORDINAZIOA ETA TRANSBERTSALITATEA

Loturiko Aalborgeko Konpromisoa:		1. GOBERNATZEKO MODUAK	
AZPIEREMUA		ONDORIOAK	ESKU HARTZEKO LEHENTASUNEZKO EREMUAK
Barneko koordinazioa eta komunikazioa		<p>Lizartzako Udalean badago herritar eta udalbatzaren arteko lan-talde egonkorra zeinek Lizartzako gai ezberdinak jorratzen dituen. Tokiko Agenda 21 prozesua ere bere gain hartuko du lan-talde honek.</p> <p>Lehenengoz gauzatuko da Tokiko Agenda 21 prozesua bere osotasunean.</p> <p>Prozesurako beharrezko baliabide teniko guztiak jarriko ditu Lizartzako Udalak.</p> <p>Tokiko Agenda 21 prozesuak erabateko babes politikoa du Lizartzan.</p> <p>Tokiko Ekintza Plana Lizartzako Plan Estrategikoa izango da eta, beraz, kontutan izango da urteroko aurrekontuak zehazterakoan.</p>	<p>Udalaren eskumenekoak</p> <ul style="list-style-type: none"> Tokiko Agenda 21en ondorioz sortuko den Ekintza Plana diseinatu, ezarri eta bere jarraipena egiteko baliabideak ezarri. <p>Udalaz gaindiko eskumena</p> <ul style="list-style-type: none"> Ez da aurreikusten.
Tokiko Agenda 21 kudeatzeko eredua ezartzea			
Baliabide teknikoak			
Buruzagitza politikoa			
Udal kudeaketa planifikazea eta programatzea			



Lizartza